

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2012ko uztailaren 11. IX. urtea. 2.382. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



E. MAIZ

→ **Iturriko uraren atzean zer dagoen ikusteko aukera.** Tolosaldeko hainbat alkate eta zinegotzik Baliarrainen dagoen Ibiur urtegia, edateko uraren araztegia eta hondakin uren araztegia bisitatu zituzten, atzo. Ur Kontsorzioak antolatutako ohi du bisitaldia legealdi, eta bertan «iturriko uraren atzean zer dagoen erakusten saiatzen» direla dio Iñigo Elozegi kontsorzio zuzendariak. ◊4

Aimar Sagastibeltza Eibar taldeko jokalaria

«Eibar futbol taldea beti izan da erreferentzi bat Euskal Herrian»

Teruelen hiru denboraldi eman eta gero, Eibarren ariko da aurrerantzean leitzarra ◊7



L. TERRADILLOS

Tolosaldea Sahararekin taldeak laguntzen jarraitzeko deia egin du

Eskualdeko laguntzarekin Euskal Herria izeneko eskola egin dute Miyic herrian ◊6

Iker Piris
Gitarra jotzailea

«The Romanticos taldea blues musikan aritzeko sortu genuen»

The Romanticos taldeko partaidea da tolosarra; diskoa kaleratu berri dute

Elkarriketa ◊2

Zaldiekin udara pasatzeko aukera, Tolosan

Zaldikide elkarteak zaldiekin trebatzeko ikastaroak antolatzen ditu Tolosako zezen plazan; helburua «hasiera batean egon daitekeen ikara hori kentzea» dela diote ◊3



Tolosako zezen plazan aritzen dira ikastaroa egiten. I. GARCIA LANDA

Iker Piris ◦ **Gitarra jotzailea**

Iker Piris autodidakta izan zen bere hastapenetan. Duela hiru urte Musikenen lizentziatura eskuratu eta gero, The Romanticos izeneko bere azken proiektuan buru-belarri dabil tolosarra, kaleratu berri duten diskarekin.

«Gero eta lan gehiago egin behar da, kontzertuak baldintza onetan eskaini ahal izateko»

Itzea Urkizu Tolosa

The Romanticos musika taldeko sormen lan gehienak Iker Piris (Tolosa, 1979) gitarra jotzailearenak dira. Bere gisara hasi zen gitarra-rekin, baina 2009an, Musikeneko lizentziatura eskuratu zuen, jazz-eko espezialitatean. Hainbat bakarlari eta talderekin aritu izan da oholtza gainean, eta gaur egun, gitarra irakasle lanetan eta musikari-kolaboratzaile gisa aritzen da, aldi berean.

The Romanticos-eko kideak ditu Hilario Rodeiro, Xabier Barrenetxea eta Paul San Martin, eta pasa den ekainean argitaratu zuten *My time* izenburua duen lehen diska, Gaztelupeko Hotsak zigilupean. Blues eta jazz jaialdi garrantzitsuetako oholtzetan nahiz areto txiki eta tabernetan aritzen dira.

Nola sortu zen The Romanticos proiektua?

Beti horrelako zerbait buruan izan dut, eta, besteak beste, nire kantak lantzeko eta blues musikan aritzeko sortu zen; taldekideek ere musikaren adar hau lantzeko gogoaz zuten.

Gaztelupeko Hotsak zigiluarekin diskoa argitaratu berri duzue.

Bai, hala da. Hasiara-hasieratik proiektua interesgarria iruditu zitzaion argitaletzeko arduradunei, eta azkenean kalean da diskoa. Orain, batez ere, eskaintzen ditugun kontzertuetan saltzen ditugu diskoak, eta disketearen bitartez ere eros daitezke aleak; horretan gabilta beraz.

Emanaldi asko al dituzue zuen agendatan, datozen hilabeteotarako?

Egia esan bai. Udako emanaldi garrantzitsuetako bat Getxoko blues jaialdian eskaini genuena izan zen, eta Hondarribia Blues Festival-en ere aritu ginen, Road



HITZA

to Memphis saileko lehiaketan. Orain, abuztuaren 10ean, ere badugu kontzertu garrantzitsu bat, Burlatan (Nafarroa), bertako blues jaialdian. Jaialdiez gain, ordea, areto txikietan jotzeko ere deitzen digute, eta horrela, hilaren 14ean Lasarten dugu emanaldia, 20an Beasainen, abuztuaren 28an Bilbon,.... Baditugu, beraz, gauzak.

The Romanticos proiektuaz gain, beste egitasmo batzuetan ere aritzen zara, ezta?

Bai, bai. Besteak beste, Abarlotz Olano abeslariari gitarra-laguntzak egiten dizkiot; diska bat badugu lehendik, eta orain beste bat prestatzen ari gara. Era berean, noizbehinka jendeak hots egiten dit lanak eskaintzeko, eta denbora baldin badaukatu, baietzkoa ematen diet.

la bizitza osoa daramazu gitarra josten, ezta?

Bai, hala esan daiteke. Musiken gitarra lizentziatura egin nuen, jazz espezialitatean. Geroztik, zazpi urte daramatzat Legaz-

piko Doinua musika eskolan irakasle lanetan. Dena den, etxean eta beste eskola batzuetan irakasle gisa, hamarkada bat baino gehiago daramat; 22 urte ingururekin hasiko nintzen.

Nola ikusten duzu gaur egun, musikari profesionalen etorkizuna?

Diskoak dendetan saltzeari dago-

kionez, kontua zail samar dago gaur egun. Gu, gainera, talde txikia gara, eta ez da erraza. Behar bada, noizbehinka, blues edo jazz musika oso gustuko duen musikazalaren batek erosten du alearen bat, baina ez da ohikoena. Hemen, gakoa, jendea kontzertuetara erakartzea da. Emanaldi eta

jaialdietan saltzen ditugu, batik batik, diskoak. Ikusizun onak eskaini behar dira halakoetan, eta ikusleekiko nolabaiteko *feedback*-a sortu behar da. Horre-

«Emanaldi eta jaialdietan saltzen ditugu, batik batik, diskoak»

la saltzen dira diskoak, beraz, gaur egun; nik, behintzat, horrela saltzen ditut.

Eta emanaldiei dagokionez?

Aldaketa nabaritu dugu, bai. Lehen zertxobait gehiago ordaintzen zuten, esaterako, areto txikietan nahiz tabernetan. Jaialdi handietan ere, eskaintzak gero eta baxuagoak dira. Gero eta gehiago lan egin behar da, kontzertuak baldintza onetan eskaintzeko; lortzen dugu, baina lehen baino gehiago kostata. Baina azken finean, musikari guztioi zuzenean jotzea gustatzen zaigu, eta hori izaten da gure tira-bira.

◦ tolosa@hitza.info

Irudia ◦ **Leitza****PERURENARI 'URREZKO OILARRA'**

Iruñeko Napardi gastronomia elkarteak *Urrezko oilarra* saria eman zion atzo eguerdian, Iñaki Perurena leitzarrari, San Fermin jaien barruan. Zientzian, kiroletan, giza zientzietan nahiz kultur arloan nabarmentzen diren nafarrek jasotzen dute, urtero, sari hau. Besteak beste, herri kiroletako ordezkari nabarmenatarikoa izateaz gain, poeta, abeslari, eskultore eta aktore moduan ere lan egin izanagatik aukeratu dute Perurena. JAGOBA.MANTEROLA - ARGAZKI.PRESS

400 metro hesidunetako Gipuzkoako errekorra lortu du Amaia Seguroлак

1998az geroztik ez du inork Olatz Ferran atleta donostiarrak ezarritako marka hobetzea lortu

I. Urkizu Tolosa

Tolosa CF atletismo taldeko Amaia Seguroлак korrikalari tolosarrak, 1998. urtean Olatz Ferran atleta donostiarrak lortutako 400 metro hesidunetako Gipuzkoako errekorra hobetu zuen, asteburuan, Mataró-n (Bartzelona, Herrialde Katalanak).

Modu honetara, Gipuzkoako denborarik onena eskuratu du Seguroлак, 400 metro hesidunetako proba 1:00:44ko denboran burutuz. 1:01:68 zen 1998an Ferranek ezarri zuen marka.

◦ tolosa@hitza.info



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Zaldikidek ikastaroak ematen ditu Tolosako zezen plazan, zaldiekin trebatzen ikasteko. Lasarten du zalditegia eta udan ematen ditu ikastaroak hemen. Animalia berezi horiek sortu dezaketen hasierako beldurra kentzea da helburuetako bat.

Zaldien mundua hobeto ezagutzeko

Imanol Garcia Landa

Animaliekiko zaletasuna oso zabalduta dago eta gutxi izango dira zaldia bezain erakarriak. Zaldikide orain hamabi urte inguru hasi zen ikastaroak ematen Tolosako zezen plazan. Ikastaroak, batez ere, hasiberrientzako dira. Rakel Aranburu irakasle tolosarrak azaldu duenez, «ikastaro hauen asmoa zaldia ezagutzeko da eta hasiera batean egon daitekeen ikara hori kentzea».

Batez ere, haurrek parte hartzen dute ikastaroetan, eta zenbait maila daude, hau da, inoiz zaldi gainean ibili ez direnetik hasi eta dagoeneko zaldien munduarekin harreman dutenak arte. «Ikastaroa ez da bakarrik zaldi gainean jarri eta plazari itzuliak ematea», dio Aranburuk. «Aurretik zaldia prestatu behar da, garbitu, txukundu... Horrek ere zaldiarekin egoteko konfiantza ematen die». Bestalde, noizbait zaldiren bat izan nahi badute, modu horretara ikusten dute zer nolako zaintza behar duten.

Zaldiaren gainera igotzen direnean ematen dien sentsazioa «erabat berezia» dela dio Aranburuk. «Zaldiaren gainean igotzen garenean, gure urduritasuna nabaritu egiten du berak. Lasai bazau, zaldia normalean lasai dago. Urduri igotzen bagara, zaldia ere urduri jartzen da. Horregatik, hasieran egiten den zainketa lan hori zaldia eta zaldunaren arteko harremana sendotzeko egiten da», gaineratu du Aranburuk.

Behin zaldi gainean dagoela, ikasleari oinarritzko ezagutzak irakasten zaizkio: zaldia kontrolatu, trostan nola atera behar den, nola gelditu, ezkerrera eta eskuinera joateko egin beharreko mugimenduak, nola egin behar den indarra, zaldi gainean esertzeko modua... «Zaldia bere mugimendua du, eta guk mugimendu horrekin bat egin behar dugu. Aparte bagoaz, beti zailagoa izaten da», dio Aranburuk. Eskarmentu handiagoa dutenekin, mugimendu konplexuagoak egiten dituzte zaldiekin, koreografia modukoak osatuz.

Guztira 30 ikasle inguru daude, beste urte batzuetan baino gutxiago. Launako taldeak egiten dituzte, horrela irakasleak hobeto egiten du jarraipena. Ez dago gutxieneko urterik ikastaroan parte hartzeko. «Aguan zortzi urteko haur bat igotzen da zaldira eta hasiera batean blokeatu egiten da, eta sei urteko beste haur



Tolosako zezen plaza leku aproposa da zaldiekin ikastaroak emateko. I.G.L.

bat igo daiteke, askoz lasaiago, eta errazago hartu dezake zaldi gainean ibiltzeko trebetasuna», azaldu du Aranburuk. «Adin polita zortzi urtetik aurrera izan daiteke». Aranburuk gaineratu duenez, «ikusten dutenean emandako aginduei zaldia kasu egiten dietela, orduan etortzen da betetasuna. Hasieran, ikasi arte, zenbait muga ere badituzte, haurrak izanik, ez dutelako indar handirik».

«Zaldia eta biok ados jartzea»

Tolosako zezen plaza horrelako ikastaroak emateko oso egokia dela dio Aranburuk: «Zaldia ere urtero berdinak dira eta ohituta daude lekura eta ikastaroan egiten diren ariketetara». Zaldikidek Lasarten du zalditegia. Bertan ere urtean zehar ikastaroak ematen dituzte. Aranburu bera hasierako udako ikastaroetan izan zen, eta gero gehiago ikasi zuen Lasarten.

Urtean zehar Lasartera joaten den ikasleetako bat da Irati Etxaniz. Bosgarren urte da udako ikastaroan parte hartzen duela, eta eskarmentu handiagoa duten beste lagunekin batera, hasiberri zaldia zaintzak egiten laguntzen die. «Animaliak asko gustatzen zaizkigu», dio Etxanizek eta garbi du zer atsegin duen gehien zaldiei dagokionez: «Zaldia eta biok ados jartzea, biok ondo ulertzea». Hori batzuetan oso zaila dela dio Etxanizek, baina Tolosako ikastaroetan dauden zaldia lasaiak direla gaineratu du. Lasartera joaten direnean, mendira ere joaten direla azaldu du Etxanizek, eta hori «oso polita» izaten dela.



Zaldi gainera igo aurretik, zainketa lanak egiten dituzte ikasleek. I.G.L.



Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Autoa.** Suzuki Vitar 2000 HDI. 100.000 kilometro dauka eta oso egoera onean dago. Aukera paregabea! Interesatuak deitu 649 51 09 41 telefono zenbakira.

ALOKAGAI

■ **Etxebizitza.** Villabona erdiguneko 3 urteko babes ofizialeko etxebizitza eta garajea alokairuan Etxebideren baimenarekin. 2 logela, sukaldea eta bainugela. Igogailua. Terraza han-

dia (11m). Oso argitsua eta eguzkitsua. Tximinia ere badu. Zure errenta aitoparen araberako prezioa. Ez duzu etxebaten jabea izan behar. Kontratupean 2015era luzagarri. Aukera ezin hobea!



Udal ordezkariak eta teknikoez uraren ziklo osoa egiten duten azpiegiturak bisitatu zituzten; Baliarrainen, Ikaztegiaren eta Adunaren izan ziren. E. MAIZ



↓ **Ibiur urtegia**

90,48

■ **Ura.** Azken urtea oso ona izan da Ibiur urtegiarentzat. Ur kopuru azken asteetan beherantz egin badu ere, atzoko datuen arabera, %90,48an dago beteta Tolosaldeko urtegia. 52.105 biztanleri ematen dio ura.

menduak, eta lehen zatian urak dakartzan olioak edota ur gainean dauden hondakinak bereizten dira», adierazi zuen. «Bigarren zatian dekantagailuetara pasatzen da ura, eta bertan arazketaren lehen fasea ematen da», gaineratu zuen, eta hirugarren fasean «prozesu biologikora iristen da ura». Behin prozesu guztia bukatuta, pixkana urari ibairako bidea emango zaio, «kalitate oneko ura isuriko dugula bermatu dezakegu, baina bereizten dugun lokatzarekin oraindik ziur ez dakigu zer egingo dugun», nabarmendu zuen Saizarrek.

Hondakin uren araztegia 92.247 biztanlerentzat dago diseinatua, eta, gehienez ere, 5.314 m³/h emaria arazteko dago prestatuta. Behin guztia bukatu eta martxan jartzen denean, Oria ibaia Tolosaldea zeharkatzen duen zatiak ere itsura garbiagoa izateaz gain, kalitate hobea duen ura izango du.

Uraren informazio zabalduz

Bisitatu hainbat herrietako ordezkariak izan ziren, eta zalanak argitzea eta azpiegitura guztien gaineko galderak egiteko aukera izan zuten. Adunako araztegia ezagutu aurretik, ordea, Baliarrainen dagoen Ibiur urtegia eta Ikaztegiaren kokatzen den edateko uraren araztegiak bisitatu zituzten. Hiru bat urte izango dira martxan jarri zizutela. Baliarrainen, ura nola pilatzen den, eta urtegiaren paretan barrutik ezagutu zituzten. Bestetik, Ikaztegiaren, Ibiurko urtegiaren pilatzen den ura edangarri nola bihurtzen duten jakin zuten. Baita, zenbat ur sartzen den edota ateratzen den ere.

Hasierako urteak nahiko eskasak izan ziren Ibiur urtegiarentzat, eta oso gutxi bete zen. Gaur egun, aldiz, eta azken asteetan maila jaitsi badu ere, atzoko datuen arabera, urtegia %90,48an dago beteta. Egoera honen aurrean «gustura» agertu ziren arduradunak.

● tolosaldean@hitza.info

Hondakin uren araztegiarekin uraren ziklo osoa bukatutzat ematen dute

Adunaren egin duten ur ziklin araztegia martxan jarri berri dute; udal ordezkariak eta teknikoez ikusi dute

Eneritz Maiz Aduna

Baliarrainen dagoen Ibiur urtegia, edateko uraren araztegia eta ur ziklin edo hondakin uren araztegia bisitatu zituzten, atzo, eskualdeko alkate eta zinegotziek, teknikoez batera. Gipuzkoako Ur Kontsurtzioaren zuzendaria den Inigo Elosegi eta Josetxo Saizar teknikaria izan ziren, besteak beste, azalpenak eman zizkietenak.

Adunaren eraiki duten araztegia ia bukatzean dago, baina dagoeneko martxan jarria dute. Tolosaldean, orain artean zintzilik zegoen ur ziklin araztea, eta Adunaren eraiki berri duten araztegiarekin bukatutzat ematen dute uraren ziklo osoa. Amasa-Villabona eta Andoain artean dagoen Adunako industriagunean eraiki dute.

Duela urte batzuk atzera eginenez gero, «Tolosaldean ez zegoen ezer, eta gaur egun, ura pilatzeko urtegia dugu. Ur hori edangarri bihurtzen duen araztegia ere badugu, eta bukatzeko ur ziklinak

tratatze instalazioa falta zitzailgun», esan zuen Elosegik.

Gipuzkoako Ur Kontsurtzioaren legealdi guztietan antolatzen du urari lotutako azpiegiturak ezagutzeko bisita gidatua. Alkate, zinegotzi eta teknikoez zuzendua izan ohi da. Honela, eskualdeak dituen instalazioak ezagutzen dituzte, eta baita hauen funtzionatzeko modua ere.

Inigo Elosegik azaldu zuenez, «normalean azpiegitura hauek ezezagunak izaten dira, eta bisita hauekin iturriko uraren atzean zer dagoen erakusten saiatzen gara».

Hiru zatiak martxan daude

Adunako lurretan eraiki dute hondakin uren tratatzea, baina ez dute guztiz bukatu. Oraindik langileak ere ikus daitezke bertan. 2009. urtean hasi zituzten lanak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak babestu ditu. Araztegiak Oria ibaiaren arroan dauden udalerriei emango die zerbitzua, hau da, Legorretatik hasi eta Andoainera arte. «Hamahiru herrietako ur ziklin jasoko ditu. Tolosaldeko hamabi herri izango dira, eta hauei Legorretako ur ziklinak baturako zaizkie», azaldu zuen Inigo Elosegi Gipuzkoako Ur kontsurtzioaren zuzendaria.

Gipuzkoako Ur Kontsurtzioaren



Adunako industriagunean eraiki dute. E. MAIZ

zatika bada ere, martxan jarri dute araztegiak dituen hiru faseak. Duela hiru hilabete jarri zuten martxan lehen zatia, eta ez da hilabete pasa azkena funtzionamenduan jarri zutenetik. «Lehen emaitzak jada jasotzen ari gara, baina emaitzak bere osotasunean jasotzeko beste lau edo bost aste

beharko ditugu. Eta Europako zuzendaritzak markatzen dituen balioak edo baldintzak jada bete-ta egongo dira», gaineratu zuen Elosegik.

Josetxo Saizar teknikaria ematen zuten ur ziklinak tratatuko dituen araztegiak nola funtzionatzen duen. «Hiru fase ditu trata-



Ur ziklinak tratatu eta garbitu osten, Oria ibaira isuriko dituzte. E. MAIZ

ERRETENGIBEL UDAL BAZKUNEN SALGAI DITU:

• Rondilla kalea, 3. zenbakian 4 etxebizitza tasatu eta merkataritzako 160 m²-ko lokal bat.

• Plaza Berria, 1. zenbakian etxebizitza bat.

Informazio gehiagorako deitu **618 77 29 54** telefono zenbakira.



Oinkari dantza taldearen Ametsetan ikuskizunean ariko diren bederatzik musikariak. HITZA

Oinkari dantza eskolakoekin ametsetan ibiltzeko aukera egongo da Olaederran

92 dantzari gazte igoko dira oholza gainera larunbatean, 22:30ean; Oinkariko bederatzik musikari egongo dira

Asier Imaz Villabona

«Nork ez du egin inoiz ametsik? Nork ez ditu begiak itxi ametsetan galtzeko? Ametsa... Bizitzaren alde definitu gabea, irekia... Guk nahi dugun bezala marrazten dugulako, gure neurrira moldatzen dugulako... Eta, batzuetan, uste ez badugu ere, amets horrek errealitaterako pausoa ematen du, bat batean, ustekabe-an... Posible dela sinestu besterik ez dugu, benetan hala nahi badugu behintzat. Gurekin ametsetan galdu nahi?». Hitz hauekin aurkeztu dute Oinkari dantza eskolako gaztetxoek euren azken ikuskizuna. Eurekin amets egiteko gonbite hau, hitzordua ere bada: Villabonako Olaederra kiroldegian, larunbatean, 22:30ean.

Eneko Arteaga Oinkariko kirolari da. 12-15 urteko dantzariak hildaren 14ean aurkeztuko duten Ametsetan ikuskizun berria, azken hilabeteetako lan gogorren ondorioa dela dio: «Dantza eskolako 92 gaztetxo izango ditugu taula gainean, eta bederatzik musikariren laguntzarekin dantza tradizional nahiz koreografia berriak eskainiko dizkigute».

Emanaldirako egun gutxi falta diren honetan, eskolako gaztetxoak «ametsetan» aurkitzen direla dio Arteagak: «Ilusio handiz prestatutako ikuskizuna izango da, eta dantzariak maila altua erakutsiko dute oholza gainean, ezustekoak ere egongo direlarik. Hunkigarria izango da beraiantzat; horrenbeste entsegu egin ondoren, taula gainera igo eta denek egindako lana erakustea».

Ametsetan ikuskizunak 90 minutu inguruko iraupena dauka. Alde batetik, dantzariak egongo dira, eta, bestetik, musikariak. Tartean testu batzuk irakurriko dituzte, Alazne Gurrutxaga amarrak idatziak. Oinkariren ohiko ezaugarriak izango ditu emalndiak, etzeko marka izango duela esan daiteke, beraz, koreografia barruan sortua izan baita. Dantzari gazteek euren ametsak islatuko dituzte emalndian, eta eurekin bidaiatzeko aukera emango die ikusleei.

Etorkizunaren zain

Dantza eskolakoekin bigarren emalndia izango da larunbatean estreinatuko dutena. Aurrez, duela lau urte, Oinkarikoekin *Iraganaren geroa* lana plazaratu zuten. Emalndiz emalndi ibili ondoren, ziklo berri baten txanda iritsi da Ametsetan ikuskizunarekin. Hala eta guztiz ere, aurrera begira zer gertatuko den ez daki ziur Eneko Arteagak: «Helduen emalndiarekin nahiko lan dugu, eta

↓ Estreinaldia

'AMETSETAN'

- **Noiz:** Hilak 14, larunbata.
- **Non:** Villabonako Olaederra kiroldegian.
- **Ordua:** 22:30ean.
- **Iraupena:** 90 minutu.
- **Sarrerak:** www.barrabarra.eu edo egunean bertan, leihatilan.
- **Hainbat datu:** Oinkari dantza eskolako 12-15 urte bitarteko 92 dantzari parte hartuko dute, eta tartean, Alazne Gurrutxaga amarraren testuak irakurriko dituzte.

estreinaldiaren ondoren zer egingo dugun, ez dakigu ziur. Etor-tzen dena ongietorria izango da».

Dantzari kopuru altuaren inguruan galdetuta, Arteagak azken urteetan bigarren talde horretan jendea biltzen joan dela dio: «Helduekin ere dantzari dabilta, ondorioz, eskolan ia lau adin elkartu dira. Asko direla ezin da ukatu, gainera, klaseak ematen ditugun herrietako dantzariak ere gonbidatu nahi izan ditugu emalndian parte hartzerako».

Dantzari kopuruari eta hauek izango duten ilusioari begiruta, gauza bat argi gelditzen da: Oinkariko etorkizunarekin amets egiteko arrazoi ugari dituela. Lehen geltokia: Villabonako Olaederra kiroldegia.

Zizurkilgo 'Zer ote?' aisialdirako gida oporretara doa

Udako egitarauaren barruan, hainbat kirol ikastarotan parte hartzeko aukera egongo da

A. Imaz Zizurkil

Udalak *Zer ote?* aisialdirako gida argitaratzen du hilero. Bertan, herrian egitekoak diren hamaika ekitaldi eta ohar iragartzen dira. Uztailako zenbakiaren ondoren, irailera arteko oporrak hartuko dituztela iragarri dute. Aurrez, udan izango diren hainbat ekimen berri eman dute.

Euskararen inguruan, hilaren 20an, Oporretan Euskaraz udal-ku irekien amaiera festa egingo dute. Horrez gain, Udako Euskal Unibertsitatean ikasten duten zizurkildarren matrikulak ordaintzeko, udalak diru laguntzak emango dituela gogorarazi dute. Aurrera plazako udal bulegoetan eskura daiteke informazio guztia.

Kulturaren atalean Amabirjiren jaiak agertzen dira, abuztuaren 14tik 18ra. Udalak herritarrei festa zoriontsuak opa dizkie.

Uda honetan, liburutegia sarean egongo dela aipatu dute aisialdi gidatik. Horretarako udalaren webgunean sartu behar da, eta bertatik joan daiteke liburutegi-klogera. «Udan irakurtzeko

nobedadeak, liburuen inguruko dena eta literaturari buruzko edo-zer» zintzilikatu dute bertan.

Kiroletan pilota ageri da, Zimiterioko V. Eskuz Binakako Txapelketa. Partidak uztailako larunbatean jokatuko dituzte, 16:00etatik aurrera. Finala, aldiz, abuztuaren 16an izango da, 22:30ean eta goiko jaien barnean. Horrez gain, 8-16 urte bitarteko gaztetxoek udan geldirik ez egiteko aitzakia ederra izango dute. Villabonako Olaederran aerobic, igeriketa, multiekintzak, mendiko bizikleta, spinning eta tenis ikastaroak antolatuko dituzte, eta Zizurkilgo futbol zelaian, futbol kanpua. Baialaratik kanpo, aldiz, hipika, piraguismoa, bodyboard-a eta surfa egiteko aukera egongo da. Guzti hauen inguruko informazioa biltzeko, Aurrera plazako udal bulegoetara joan behar da.

Bestelakoan atalean, azkenik, blusen eta kuadrillen eguna hilaren 14ean izango dela jakinarazten dute. Bazkaria 14:00etan izango da, eta ondoren jolasak eta kontzertuak egongo dira. Jaietako kartel lehiaketari dagokionez, hilaren 20a izango da lanak aurkezteko azken eguna. Danborrarako entsegu egunak ere zehaztu dituzte, eta gaur izango da lehenena. Ondoren, hilaren 18an eta 25ean elkartuko dira Atxulondon, 19:30ean.

Tolosaldea Sahararekin elkartek urtean zehar burutzen dituen ekimenei esker saharar lurralde askeko Miyic herrian ikastetxe bat eraiki du; 75 gaztetxori emango dizkie bertan eskolak.

Herritarren babesari esker lortuak

Iñigo Terradillos

Hogeitalau haur saharar etorri dira aurten eskualdera uda gure artean igarotzera. Sahara esatean, ordea, hitz egiten ari garen lurraldeaz zalantza adierazi ohi du jendeak. Gaztetxo hauek Aljeriako Tindouf hiriarren aldameneko desertu gogorren kokaturiko errefuxiatuen kanpalekuetakoak dira. Euren benetako lurraldea, baina, mendebaldeko Saharan, ordea, bereizketa egin beharra dago, sahararren esku eta marokoarren esku dagoen lurrraren artean. Zatiketa hori Saharak eta Marokok duten gatazka amaigabearen ondorio zuzena da, eta sahararrak euren lurraldera itzuli arte ez du irtenbiderik izango. Bitartean, kanpotik iristen zaien laguntzetatik bizitzera daude kondenatuak.

Eskualdean, Tolosaldea Sahararekin elkartek urte asko daromatza sahararren alde lanean. Urtean zehar hainbat ekimen antolatzen dituzte dirua bildu eta proiektuak gauzatzeko, eta horrela, esaterako, eraiki dituzte errefuxiatuen kanpalekuetan hainbat ikastetxe. Azken urteetan, lurralde askera ere bideratu nahi izan dute laguntza. Hain zuzen ere, Miyic herrian ikastetxe bat eraiki dute.

Elkarteko kide den Gregorio Eizagirre leaburuarra izan berri da errefuxiatuen kanpalekuetan eta lurralde askean, eta «Tolosaldeko herritarren laguntzarekin» eraiki den eskola bukatuak ikusteko aukera izan du. «Pozgarria izan da», azaldu du. Zentroak 75 gaztetxori eskolak emateko hiru gela izango ditu, eta horrez gain, irakasleentzat bi gela, jangela, biltokia, sukaldea, komunak eta patioa ditu. Proiektuak ia 56.000 euroko aurrekontua izan du.

Euskal Herria izena jarri dioten ikastetxea basamortuaren erdian dago. Lurralde askeko herriak ez baitira etxez eta kalez osaturiko herrigunedunak. Nomadak dira bertako herritarrek, eta desertuan sakabanaturik bizi dira. «Horregatik, haurrak goize-

an joaten dira eskolara, eta bazkaloetan itzultzen dira euren etxetara; arazoa da egunero 5-10 kilometro egin beharra izaten dutela gaztetxoek, eta horri irtenbidea emateko noranahiko ibilgailuekin irakasleek haurrak banan-ban hartzea litzateke egokiena», dio Eizagirrek.

Auto horiek lortzea izango da Tolosaldea Sahararekin elkartearen hurrengo helburua. «Beraz, eskualdeko herritarrek horrelako autoren bat emateko aukera badute, benetan eskertuko genuke». Horrez gain, ikastetxea margotuz «euskal ikutua» eman nahi diote. «Gure asmoa 3-4 lagun bertara materialarekin eramatea da, eta eskolaren hormak pintatzea», adierazi du Eizagirrek.

Ikastetxea ikusteaz gain, udan Euskal Herrira etortzen diren haurren identifikazioa egiteko ere baliatu zuten bidaia. Tolosaldea Sahararekin elkarteko kidearen esanetan, «krisiaren eragina asko nabari da, urtetik urtera haur gutxiago datozelako, eta laguntza —materiala eta elikagaiak— gutxiago iristen delako». Hori guztia kontuan izanik, sahararrak gogoan izan eta orain arte bezala laguntzen jarrai dezatela eskatzen diete herritarrei Sahararen aldeko elkartetik. Era berean, herritarrei, eta bereziki erakundeei, Marokorekin duten gatazka politikoan eragin dezatela eskatzen diete: «Euren borroka bultzatzea eskatzen diegu, erreferenduma egin, lehenbailehen askatasuna berreskuratu eta euren lurretara itzultzeko», azaldu du Gregorio Eizagirrek.

Bir Lehu herrian proiektuak

Errefuxiatuen kanpalekuetako Bir Lehu herriarekin dago anaituta Tolosa. Bada, anaitasun horri erantzunez, elkartasun proiektua ari da gauzatzen bertan udala. 18.000 euroko diru laguntzarekin ur biltegiak eta hodi-terria aldatu dituzte, lehengoak ura kutsatzen zuelako. Biltegi guztiak ezin izan dira berritu, ordea, eta egunotan gurean da bertako alkatea Tolosako Udalarekin duten hitzarmena sinatu eta laguntzarekin jarraitzeko.



Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideak Miyic herriko alkatea eta ikastetxeko ordezkariekin. HITZA



Saharar lurralde askean Tolosaldea Sahararekin elkartearen laguntzaz eraiki duten ikastetxea. HITZA



Ikastetxe berriko sukaldea. Eskuinean, uda gurean igarotzera datozen haurrak aireportuan. HITZA



400 haur baino gutxiago etorri dira aurten Euskal Autonomia Erkidegora udako bi hilabete igarotzera. HITZA

Iñigo Terradillos Leitza

Aimar Sagastibeltza ◊ Eibar taldeko jokalaria

Etzera itzuli da, Euskal Herrira, eta horregatik, «oso pozik» dago Aimar Sagastibeltza (Leitza, 1984). Teruelen jokatu du azken hiru denboralditan, eta balantze oso baikorra egin du. Hurrengoan, Eibar taldean ariko da, eta «ilusioz beterik» dago erronka berriaren aurrean.

Nolatan Terueldik Eibarrerako aldaketa?

Nere helburuetako bat beti izan da etxetik gertura bueltatzea, eta ahal bada izen ona duen talde batera. Eibarrek baldintza hori betetzen zuen, beraz, aukera polita zen. Azken denboraldia oso ona irten zitzaidan, egin dudana onena, eta horrela, Eibarren jokatzeko aukera etorri zitzaidan. Bi aldeek adostasun batera iristeko interesa dutenean, nahiz eta murrizketa ekonomiko handiak izan, erraza da akordio hori lortzea.

Beraz, gustura zaude Eibarren jokatu duzulako datorren denboraldian.

Ikaragarriko poza sentitzen dut. Euskal Herri mailan, Real, Osasuna eta Athletic kenduta, beti izan da erreferentzi bat Eibar. Egun, Bigarren B mailan dago, baina, maila horretan ere erreferentzi bat da. Maila handiko jokalaririk ditugu eta fitxatzen ditugu, eta bertatik talde handietara jokalaririk handiak joaten dira. Izen handia duen taldea da, zorrotza. Ilusioz beterik nago.

Zer eskatzen diozu denboraldi berriari?

Gauza bakarra eskatzen diot, lesioak errespetatzea. Ez badut lesiorik uste dut denboraldi ona egiteko moduan izango naizela. Oso baikor nago. Bestela, ez naiz epe luzera helburuak jartzen ditudan pertsona bat. Nahiago izaten dut epe laburrera jartzea. Ahalik eta aurrendenboraldi onena egitea da orain, asmoa eta ahalik eta lehiakorrena izaten saiatzea. Alde horretatik, ambizio handikoa naiz, eta uste dut horrela izan behar duzula zure buruarekin. Gainera, lana ongi eginez gero denborak bere saria ematen du.

Taldera egokitzea izango da lehen-dabizikoa lana, ezta?

Azken hiru urtetan Bigarren B mailan lehiatu da Teruel taldearekin; hurrengo denboraldian maila berean ariko da, baina etxetik gertuago, Eibar taldearekin fitxatu baitu leitzarrak.

«Lesiorik ez badut, uste dut denboraldi ona egiteko moduan izango naizela»



IT

Hori beti gertatzen da futbolean, eta maila guztietan, gainera. Urtero aldaketa ugari izaten dira. 22 jokalaritatik, erdiak behintzat berriak izaten dira kasu askotan. Beraz, denbora tarte bat elkar ezagutu eta elkar egokitzeo izaten da. Dena den, jokalaririk horretara ohituta daude, eta nahiko erraz ulertzen dugu elkar. Aurrendenboraldian partida ugari izango ditugu taldea egokitzeo, eta joko sistemetara egiteko.

Taldeko entrenatzailea eta jokalaririk ezagutzen al dituzu?

Entrenatzailea ez dut sakonki ezagutzen, baina berarekin hitz egin dut fitxaketa dela eta. Gaizka Garitano Euskal Herriko punta puntako talde guztietan aritu izan da. Futbol jokalaria moduan

izan ona zuen. Badakit ikaragarri zorrotza dela entrenatzaile lanean. Jokalaririk gehienak ezagutzen ditut, baina erlazio handiagoa dut berekin, Tolosaldeko Arruabarrena-rekin eta Bizkaiko Añibarrorrek. Azken honekin euskal selekzio amateurrean jokatu dut, eta Arruabarrenarekin betidanik izan dut harremana.

Konpetentzia handia al duzu zure postuan?

Eibar moduko talde batek konpetentzia handia du. Esaterako, lehen egon nintzen taldean, Teruelen ez zegoen hainbestekoa. Ez soilik atzealdean, hau da, nire postuan, baizik eta postu guztietan gauza bera gertatzen da.

Hori onerako ala txarrerako izaten da?

Hori, azken finean, erronka moduko bat izaten da. Lesioek-eta errespetatuz gero, taldearentzat ona da konpetentzia egotea jokalariren artean. Oso garbi dut aurrean ez dudala erlaxatzeko aukerarik izango, eta mailarik gorena ematen saiatu beharko dudala beti.

Lehen aipatu duzu Teruelen jokatu duzun azken denboraldia egin duzun onena izan dela. Nolako balantzea egin duzu Teruelgo egonaldiaz?

Denboraren ikuspegitik izan naitzen leku guztien balantze bakorra egiten dut nik beti. Nastic taldearekin Teruelera joan nintzen, Bigarren A mailatik Hirugarrenera. Atzerapauso handia izan zen, baina zortez lehen urtean igo egin ginen mailaz. 20 urte eta

gero lortu zuen taldeak mailaz igotzea. Taldearentzat bezala, niretzat pertsonalki gorakada handia izan zen. Bigarren urtean Bigarren B mailan mantentzea zen

«Eibarrekin mailaz igotzea ikaragarria litzateke, baina hori oso zaila izango da»

helburua, eta erraz lortu genuen. Pertsonalki oso urte ona izan zen bigarren hori ere, baina hirugarren urtea, hau da, iazko denboraldia izan dudana onena izan zen. Uste dut oso zaila izango dela horrelako denboraldi bat errepikatzea. Eskuin hegaleko atzelari moduan aritu nintzen, eta aukera ugari izan nituen, eta azkenenean 6 gol sartu nituen. Teruelgo historiako hiru urte onenetarikoak bizitzea egokitu zait, beraz, gustura nago.

Zer izango litzateke zuretzat Eibarren lehen urtean jokatu eta mailaz igotzea?

Hori ikaragarria izango litzateke. Oso zaila da hori. Bigarren B mailan Cadiz eta Alavesen moduko taldeak daude. Hiri handietako taldeak, gizartearen babes handia dutenak. Dena den, ilusioa ez da galdu behar. Denborak esango du.

Leitza futbolari baino gaztetxoek pilotari izan nahi dute.

Agian, Barriola eta Bengoetxea moduko pilotariek zaletasun hori eragin dute. Dena den, azken urteetan futbolera joera handitu dela ere esango nuke. Gainera, nabarmentzekoa da Leitza bezalako herri txiki batek zenbat goi mailako kirolari eman dituen.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



≈ 20°
≈ 14°

GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	24°
HOTZENA	13°


Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak: BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil



Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

■ **Tolosa.** Gazte Topagunearen Uda Gaztea ekimenaren barruan, gaur, esku jokoak egingo dituzte, Trianguloa plazan.
■ **Tolosa.** Banaiz Bagara elkar-teak etorkinak euskarara gerturatzeko ekitaldiak antolatu ditu datozen asteetarako, Villabonan eta Tolosan. Gaur Tolosaren txanda da; 19:30etik 20:30era, dantza ikastaroa egingo dute, kultur etxean.
■ **Aduna.** Asvineneak barreteria-ia ikastaroa antolatu du hilaren 14 eta 15erako. Aitor Navarro da irakaslea, eta ikastaroak 45 euro balio du. Izena emateko 627 98 55 68 telefono zenbakira deitu behar da. Bestetik, antzerki inprobisazio ikastaroa ere antolatu du hilaren 16, 17 eta 18rako. Irakaslea Emmanuelle Thomé izango da, eta 622 86 79 48 telefono zenbakira deitu behar da izena emateko. Bukatzeko, hilaren 24, 25 eta 26an, 11:30etik 13:15era eta 16:00etik 17:45era, umeentzako zirko ikastaroa antolatu du. Eneritz Otegi eta Virginia Maffassanti izango dira irakasleak, eta 50 euro balio du. Izena emateko 689 79 24 69 edo 605 41 08 80 zenbakietara deitu behar da.
■ **Tolosa.** Oargi mendi taldeak Soriara irteera antolatu du datorren astebururako. Ostiralean aterako dira Tolosatik Vinuesa-ra joateko, eta larunbatean Laguna Negratik Urbion mendia igoko dute. Izena emateko 688 69 86 42 telefono zenbakira deitu behar da edo info@oargi.com helbidera idatzi. Izena ematearekin batera Euskadiko Kutzako 3035 0028 11 0281141038 kontu korrantean 20 euro sartu behar da.

■ **Tolosaldean.** Lehiberrik hurrengo hilabeteetarako hiru programa antolatu ditu: Cheque+innova (hiru langiletik gorako enpresentzat), Legescan eta Eskoscan. Enpresei zuzendutako ikastaroak dira, eta izena emateko Tolosaldea Garatzeneko Enpresa sailarekin jarri behar da harremanetan; 943 65 45 01 telefono zenbakira deituta edo enpresa@tolosaldea.net helbidera idatzita. Ikastaroak egiteko 250 euro ordaindu behar dira, baina Legescan eta Ekoskan ikastaroen kasuan, Lehiberriko kideek doan egin ahal izango dituzte.

ERAKUSKETAK

■ **Alegia.** Mirari Bengoaren margolanak ikusi daitezke, herriko jaiak arte, Jubilatuen tabernan.
■ **Tolosa.** Ni Pinotxo naiz izeneko erakusketa ikusi daiteke, Topic zentroan, irailaren 23a arte. Ostiralean eta larunbatean bisita antzetzutak eskaintzen dituzte.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Hainbat kirolarik iheslarien eta presoen eskubideen alde egin dute

Herrirak ontzat jo du Europako Giza Eskubideen Auzitegiak 'Parot doktrina'ren inguruan esandakoa

Rebeka Calvo Tolosaldea

Euskal Herriko kirolari eta kirolari ohien talde batek espetxe politika aldatzeko eta euskal preso eta iheslari politikoak herriratzeko eskatu du. Herrirak babestutako Euskal Pilota manifestuaren bitartez. Tolosaldean ere hainbat pilotarik egin dute bat ekimenarekin, tartean, esku pilotan aritzen den Mikel Olaetxeak, eta palan aritzen diren Nagore Arozek, Maitane Aburuzak eta Ainhoo Garmendiak.

Herrirako Tolosaldeko ardura-dunek esan dutenez, «bakea eta irtenbideak eraikitzen lagundu-ko duen egoera berria behar dugu»: «Giza eskubideak erres-

petatu eta bazterketa oro desagertu behar da. Beharriaren honen trazarik handiena kartzela politika da egun, ehunka pertsonen giza eskubideak baztertzeko dituelako». Herriraren iritziak, gobernuak dute kartzela politikaren «giltza», baina herritarrak izan behar dira gobernuak pausoak ematera eramango dituztenak: «Horixe da Euskal Pilota: bakea eta konponbidea eraikitzeko, preso eta iheslarien egoerari irtenbidea emateko erronka historikoa».

'Parot doktrina'

Herrirako Tolosaldeko kideek, era berean, Europako Giza Eskubideen Auzitegia 197/2006 doktrinaren edo *Parot doktrina* bezala ezaguturikoaren aurka azaldu izanaz hitz egin dute. Atzo eman zuen epaia, eta mugimenduko kideek herritarrak zoriondu nahi izan zituzte, lehenik. Ebazpenaren arabera, Espainiako Gobernuak Tafallako Ines del Rio preso ahal den azkarren libre utzi

beharko du, eta gainera, 30.000 euroko kalte-ordaina eman beharko dio. Espainiako Gobernuak auzian helegitea jarriko duela esan du. Herrirak ere presoak aske uzteko eskatu dio Espainiako Gobernuari. Bukatzeko, jendarteari euskal presoen eskubideen alde lanean jarraitzeko deia egin dio, «herritarren mobilizazioa balioa eta gaitasuna frogatzen baitu eta gobernuen jokabideak dituen mugak eta sostenga ezintasuna agerian uzten dituelako».

Mujikaren euroagindua

Bestalde, Paueko epaitegiak pasa den astean atxilotutako Juan Mari Mujikaren kontrako euroaginduaren erabakia atzeratzea erabaki zuen atzo, eta bihar emango du jakitera. Amezketarra Seysseseko espetxean jarraitzen du preso. Eskaera Lizartzako Peio Olano atxilotuta zegoela eginiko adierazpenetan oinarritu du Espainiako Entzutegi Nazionalak. Defentsak bere aldetik, Olano torturatua salaketa jarri zuela argudiatu du, eta tortura salaketa zertu bitartean euroagindua ez onartzeko eskatu du.

Herrira mugimenduko kideek amezketarraren atxilotzearekin bat egin ez dutela esan dute: «Herriraren ustez, Euskal Herriari ireki den egoera berria ez dute lekuri horrelako gertaerek. Gure ustetan konponbidearen bidean espetxeak husteko garaia da, eta hori lortzeko ari gara lanean. Beste batzuk alditz, giza eskubideei eta gizartearen eskakizunei muzin egin ez espetxeak betetzen jarraitzeko hautua egiten ari dira».



Eskualdeko hainbat pilotarik eman diote atxikimendua, manifestuari. HITZA

Agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info